

BOTIKEK ERAGINDAKO ONDORIO KALTEGARRIAK: BELDURRIK? BAI, ZERA!




Botikek gaixotasunak sendatzen, leuntzen edo prebenitzen dituzte (**onura**); batzuetan, ordea, **ondorio kaltegarriak** ekar ditzakete (**arriskua**).

Ez beldurtu, eta irakurri **prospektua**. Botikak eragin ditzakeen ondorio kaltegarriak jakiteak lagunduko dizu behar bezala jokatzeko.

Jende guztiak ez ditu izaten ondorio hauek..., eta ondorio guztiak ez dira berdinak: **maiztasunaren** eta **larritasunaren** arabera dira, eta, oro har:

- **Maiz** gertatzen direnak, arinagoak izan ohi dira.
- **Larriak** direnak, gutxiagotan gertatzen dira.

Handiagoa da botikaren onura,
sor dezaketen arriskua baino.



Susmatzen baduzu botikaren batek ondorio kaltegarriren bat eragin dizula, garrantzitsua da osasun-profesional bati komentatzea, arazoa konpontzeko. Osasun Aholkularitzan, gau eta egun artatuko zaituzte.

Osasun Aholkua

900 20 30 50

Ondorio kaltegarrien berri emanez gero, botikak hobeto ezagutzen laguntzen dugu, segurtasun handiagoz erabiltzeko.

Zeuk eman ahal diozu ondorio kaltegarriaren berri, zuzenean, **Farmakozaintzako Espainiako Sistemari** (www.notificaram.es).

ESKER ONAK: Mila esker, gaia proposatzeagatik, Elena Suárez irakasleari eta Esperientzia Geletako ikasleei (Bizkaia), eta, testua berrikusteagatik, Carmelo Aguirre eta Monserrat García Euskal Autonomia Erkidegoko Farmakozaintza Zentroko arduradunei.

REACCIONES ADVERSAS POR MEDICAMENTOS: ¿QUIÉN DIJO MIEDO?




Los medicamentos curan, alivian o previenen las enfermedades (**beneficio**) pero, algunas veces, pueden causar **reacciones adversas** (**riesgo**).

No tengas miedo y lee el **prospecto**. Conocer las posibles reacciones adversas puede ayudarte a manejarlas.

No todo el mundo las experimenta y no todas son iguales. Dependen de la **frecuencia** con la que ocurren y de su **gravedad**. Generalmente:

- las reacciones adversas **frecuentes** son menos graves,
- las reacciones adversas **graves** son menos frecuentes.

El beneficio que se obtiene con los medicamentos pesa más que los posibles riesgos.



Si sospechas que un medicamento te ha producido una reacción adversa, es importante que consultes con un profesional sanitario para solucionar el problema; en el Consejo Sanitario te atenderán 24 horas al día.

Consejo Sanitario

900 20 30 50

Notificando las reacciones adversas contribuimos a conocer mejor los medicamentos para utilizarlos de una forma más segura.

Tú puedes notificar la sospecha de una reacción adversa directamente al **Sistema Español de Farmacovigilancia**: www.notificaram.es.

AGRADECIMIENTOS: agradecemos a la profesora Elena Suárez y las alumnas y alumnos de las Aulas de la Experiencia (Bizkaia) la propuesta del tema y a Carmelo Aguirre y Monserrat García (Responsables del Centro de Farmacovigilancia del País Vasco) la revisión del texto.